

Feminismoa gerran eta bakean

MARÍA OIANGUREN IDIGORAS

*Gernika Gogoratzuz Bakearen Aldeko
Ikerketa Zentroko Zuzendaria.*

XX. mendearen hasieran, feminismo bakezaleak bere aldarrikapen nagusiak egin ebazan: eskubideak erreklamatzea, bizi-baldintza duinak, bidezkoak eta bardintasunezkoak ezartzeko neurriak proposatzea eta bake-alternatibak eraikitzea. Hirurogeita hamarrek hamarkadan, *"persónala politikoa da"* leloak esperientzia pertsonalen eta gizarte-egituren arteko korrelazioa aztertu eban. Laurogeiko hamarkadan, Petra Kelly ekofeminista alemaniarrek, Gernika Gogoratzuz-en sorrerari lotua eta bakezaletasun antinuklearraren eta antimilitaristaren bultzatzaileak, militarismoaren, ingurumen-degradazioaren eta sexismoaren arteko harreman estua salatzen eban.

Feminismoa talde teoriko, zabal eta plurala da, eta zalantzan jartzen dauz generoan oinarritutako botere-egiturak, desbardinatasun sozialak eta ekonomikoak eragiten dabezenak. Ikuspegi interseksionalak, gainera, zapalkuntza-ardatzen arabera bereizitako indarkeriak ulertzea ahalbidetzen dau (generoa, etnia, jatorria, klasea, sexu-orientazioa, eta abar). Ardatz horreek alkartzean, diskriminazioa areagotzen dabe eta eskubideak, espazio publikoa, eztabaida-prozesuak eta erabakiak hartzea zailtzen dabez. Orain dala lau hamarkada baino gehiagotik sistema neoliberalak gero eta indarkeria gehiago ezartzen dau, eta horrek erakusten dau bizitza politika publikoen erdigunean kokatzeko premia larria dala.

Gaur egun, gerra salatzea eta munduan modu baketsu, justu eta iraunkorrean bizitzea erronka bat da oindino be, gizarte orori eragiten deutsona. Bertotik, Busturialdea-Urdaibai eskualdean errotuta da-

gozen Gernika Gogoratzuz eta Gernikatik Mundura erakundeek *"Bakearen aldeko emakumeen hazitegi internazionalista"* izeneko ekimena jarri dabe martxan. Proposamen honen helburua da egunerokotasunaren bakean lan egiten daben emakume-erakundeak eta toki-, eskualde-, nazio- eta mundu-mailan bakearen alde lan egiten daben kolektibo feministak artikulatzea, jakintzak, prozesuak, metodoak eta agendak trukatzeko, eta, horrela, ekologia-feministen jakintzetatik bake-kulturari ekarpena egingo deutsoen proposamen eraldatzaileak eraikitzeko. Umiltasun epistemologikoak, itxaropenaz eta bizitza ospatzearen garrantziaz berba egiten deuskuen proposamen emantzipatzaileak.

Bakeaz berba egitea bizi-alternatibak sortzen laguntzea be badala uste dogu. Horregaitik, Euskadin, Mozambiken eta Kolonbian ekimen ekosozialak laguntzen

ari gara, erauzketa- eta garatze-proposamenen aurrean. Aldi berean, prozesu kolektibo bat zabaldu gura dogu, 2026ko udabarrian Euskadin egingo dan *"Emakumeen Munduak"* Kongresuaren XV. ediziorako bihotz tematikoa izan daiten.

Gogoan dodaz 2016an *"Feminismoa gerran eta bakean. Presentzia ikusgaiak eta ikusgaitzak"* izenburupean antolatutako Gernikako kultura eta bakearen XXVI. nazioarteko jardunaldiak. Hauen haria jarraituaz. Ikusgaiak bakearen aldeko konpromisoa eta erantzukizuna bezala. Ikusezinak funtsezkoena bezala. Ekintza txikiak, presente dagoz eta bizitza zaintzen jarraitzen dabez. Ez daiguzan ikusezin bihurtu. Hauen presentzia beharrezkoa da. ■



URDAIBAI

10
urte

2024
zenb. 37
.....

© MAGAZINE



GEURE KIROL TRADIZIONALAK SUSTATZEN

| EREÑO
URDAIBAICO JAGOLEA

| ALKARRIZKETA, ARKAITZ BILBAO
BASERRITARREN AZKEN BELAUNALDIA?

| ELEIZATEAK ETA GORABEHERA ERLIJOSOAK

| JUAN CRISÓSTOMO DE ARRIAGA,ERRIGOITIAK
JATORRIKO BILBOTAR MUSIKARI HANDIA

| AHUAKATEAK, BADAUKO BERE
LEKUA BUSTURIALDEAN

| NESTOR BASTERRETXE 100 URTE